



GAIA: 312 lasarteoriatarrek parte hartu zuten 2018ko aurrekontu partizipatiboetan. 312 lasarteoriatarras participaron en los presupuestos participativos de 2018.

EGUNA: 2018/01/18

2018ko aurrekontu partizipatiboen bigarren fasean 312 lasarteoriatarrek parte hartu dute. Argiteria publikoa hobetzea eta kale-garbiketa hobetzea izan dira herritarrek gehien bozkatutako proposamenak.

Lehenbiziko fasean aukeratutako 5 proposamen ezberdinek boto-kopuru hauek lortu dituzte:

- Argiteria publikoa 1112 boto
- Kale-garbiketa 951 boto
- Txakur-kakak garbitzeko kanpaina 939 boto
- Zabaletako komun publikoa 708 boto
- Bizikletak garbitzeko makina 582 boto

Hala ere, zenbait arazo antzeman dira oraingo prozesua aurrera eramatean. Horregatik, beharrezkotzat jotzen da hurrengo prozesuak erregulatzeko araudi bat ezartzea. Oraingo gobernu-ekipoak aurrekontu partizipatiboaren araudi erregulatuarekin bat landuko du, esandako arazo horiek ekidite aldera, eta prozesu horiek benetan erantzun diezaioten Lasarte-Oriako herritar guztiei irekitako prozesu baten sentimenari, urtetik urtera jende gehiagok parte hartzea sustatuz eta gerta litezkeen iruzurrak saihestuz.

Planteatutako ekimenei dagokienez, udaleko gobernuaren herritarren mandatuari erantzuna emateko beharrezko neurriak hartzea konprometitzen da. Halaxe egin du, esate baterako, berriki aurkeztutako argiteria publikoaren lizitazio-kanpainarekin. Izan ere, 1.800.000 euroko zenbatekoa duen lizitazio honek bete-betean erantzuten dio lehenbiziko proposamenari, udalerrian 2.200 luminaria baino gehiago aldatuz.

En la segunda fase de los presupuestos participativos de 2018 han tomado parte 312 lasarteoriatarras. La mejora del alumbrado público y de la limpieza viaria han resultado las propuestas más votadas por la ciudadanía.

Las 5 diferentes propuestas seleccionadas en la primera fase han obtenido los siguientes votos:

- Alumbrado público 1112 votos
- Limpieza de calles 951 votos
- Campaña limpieza de excrementos de perros 939 votos
- Baño público en Zabaleta 708 votos
- Máquina limpieza de bicicletas 582 votos

Sin embargo, se han detectado diversos problemas en la realización del actual proceso. Por ello, se considera necesario establecer una normativa reguladora de los próximos procesos. El actual equipo de gobierno va a elaborar un reglamento regulador de presupuestos participativos para evitar dichos problemas, y con el objetivo de que estos procesos realmente atiendan al sentir de un proceso abierto a toda la ciudadanía de Lasarte-Oria, promoviendo la participación del mayor número de personas cada año, y evitando posibles fraudes.

En cuanto a las iniciativas planteadas, el gobierno municipal adquiere el compromiso de tomar las medidas oportunas para dar respuesta al mandato ciudadano, como por ejemplo con la campaña de licitación del alumbrado público, recién presentada, por un importe de 1.800.000 euros que da cumplida cuenta a la primera propuesta, al cambiar más de 2.200 luminarias del municipio.